

GARRAIOA

Maila: 5. maila

Gaiak:

- Lan taldea
- Elkarlana
- Planifikazioa
- Estrategia



Baliabideak:

- Bee-bot 1 bikote bakoitzeko
- Tapiz 1 bikote bakoitzeko
- Robota tuneatzeko materiala: kartoia, zelloa, papera, makilak, aizturrak...
- Babarrunak



DESKRIBAPENA

Bikote bakoitzak robot bat eta tapiz bat izanen ditu. Tapizan, behean aipatzen den moduan, kokatuko dira babarrun multzo batzuk. Helburua da robotarekin helmugara ahalik eta babarrun gehien eramatea bidean gelditu gabe eta **aginte bakar batean**.

JOLASTEKO MODUA

- Bi bikotek jolastuko dute bakoitza bere materialarekin. Lehenengo, robota tuneatu beharko da babarrunak arrastaka eraman ahal izateko. Tuneatzeko eskura dagoen materiala erabiliko da.
- Bakoitzak bere tapiza erabiliko du. Bee-bota tuneatu ondoren, ateratzeko laukian kokatuko da eta babarrun multzo guztietatik pasatu beharko du, ahalik eta gehien biltzen eta helmugara eramaten.
- Ibilbidea apuntatzea komeni da, frogak errepikatu beharko direlako.

			x		
x					
				x	
		x			
Helmu- ga					Ateral- dia

